

PRIBATUTASUNARI BURUZKO DOKUMENTUA

DATUEN BABESAREN INGURUKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

<u>ARDURADUNA</u>	• Tratamenduaren arduraduna: Eustateko Zuzendaritza Nagusia Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Web-orria: www.eustat.eus Posta elektronikoa: informazioa@eustat.eus Telefonoa: 945 017 500 • Datuak babesteko ordezkaria: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Web-orria: www.euskadi.eus/proteccion-datos Telefonoa: 945 018 680
<u>XEDEA</u>	• Tratamenduaren xedea: Eragiketa estatistiko bat egitea, kontsumo pertsonaleko eta familiarreko gastuari lotutako aldagaiak aztertzea, baita zehaztutako desagregazio mailetarako egiturak eta diru-sarrera pertsonalak eta familiarrak ere. • Gordetzeko irizpideak: Datu pertsonalak bildu zireneko helburua betetzeko behar den denboraz gordeko dira.
<u>LEGITIMAZIOA</u>	• Oinarri juridikoa: "Familia-gastuaren inkesta" izeneko eragiketa estatistikoan (2019-2022 Euskal Estatistika Planari buruzko ekainaren 27ko 8/2019 Legean 172503 kodearekin aurreikusita dago), datuen tratamendua 2016/679 EB Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikularen babesean egingo da, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz egindako misio bat betetzeko. 4/1986 Legea, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa. 8/2019 Legea, ekainaren 27koa, 2019-2022 Euskal Estatistika Planari (EEP) buruzkoa. • Datuak emateko betebeharra: Informazio estatistikoa eskatzen zaien subjektuak informazio hori egiazki ematera behartuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko 4/1986 Legearen 10. eta 14. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Emandako epean informazioa ez helaraztea zigortu ahal izango da, aipatutako legearen I. tituluko bosgarren kapituluaren ezarritakoaren arabera.

<u>HARTZAILEAK</u>	• Kategoriak: Euskal Estatistika Planean eta urteko estatistika-programetan jasotako estatistikak egiteko Estatistika Erakunde Ofizialeko kideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legearen 20.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Estatistikako Institutu Nazionalak, bere estatistikako planak eta programak garatzeko, Estatistikako Funtzio Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera. • Nazioarteko transferentziak: Ez dago aurreikusita nazioarteko transferentziarik.
<u>ESKUBIDEAK</u>	• Eskubideak: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean jasotako eskubideak. Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 25.3 artikuluekin eta 2016/679 EB Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 89.2 artikuluekin bat etorritik, salbuespenak ezartzen zaizkie datuak helburu estatistikoetarako eskuratzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta tratatzeko eskubideei. • Eskubideak baliatzea: Eusko Jaurlaritzaren eta herritarren arteko komunikaziorako ohiko edozein bitartekoren bidez (aurrez aurre, telefonoz edo Internet bidez) baliatu ahal izango dituzu zure eskubideak (Zuzenean zerbitzua: https://www.zuzenean.euskadi.eus). Eskubideak egikaritzeko bide hori erabilita egindako eskaerari, lehenik eta behin, tratamenduaren arduradunak erantzungo dio. Arduradunaren ebazpenarekin ados ez bazaude, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko ordezkariaren (DBO) aurrean edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) aurrean.
<u>SEGURTASUN-NEURRIAK</u>	Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin (3/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikokoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala erregulatzen duena).